

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
42/2012	R11/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

Ebazpena: 11/2018

Espedientea: 42/2012

Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 27an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentzian aurkeztutako 42/2012 zenbakiko gatazkaren inguruan. Arbitraje Batzorde honen aurrean beste gatazka bat tramitatzen ari zen, 2006ko azaroaren 8tik 2008ko maiatzaren 14ra bitartean SDU SL erakundearen helbide fiskala zein zen zehazteko, eta hori tramitatu bitartean, erakundearen 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren egiaztapen eta ikerketak egiteko eskumenari buruzko gatazka hau planteatu zen. Javier Muguruza Arrese jauna txostengile zen.

I. AURREKARIAK

1.- Gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) aurkeztu zuen, 2012ko urriaren 30eko idazki baten bidez; 2012ko azaroaren 2an erregistratu zen idazki hori Arbitraje Batzordean. 2017ko urriaren 24an tramiterako onartu zen. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) alegazioak egin zituen 2017ko abenduaren 29ko idazki baten bidez, eta idazki hori hurrengo egunean sartu zen. Espedientearen berri eman ondoren, honako hauek alegazioak aurkeztu zituzten: BFAk, 2018ko apirilaren 23ko idazkiaren bidez (idazki hori hurrengo egunean jaso zen), eta SDU SL erakundeak, 2018ko ekainaren 22ko idazkiaren bidez (idazki horren sarrera hil horren 28an erregistratu zen). ZAEAk ez zuen alegaziorik aurkeztu espedientearen berri eman ondoren.

2.- Espedienteak honako egitate eta aurrekari hauek ditu:

a) 2012ko apirilaren 27an, ZAEako zuzendari nagusiak gatazka bat planteatu zuen Arbitraje Batzordean (14/2012 zenbakiarekin tramitatu zen). Gatazka horretan eskatu zuen SDU SL erakundearen helbide fiskala 2006ko azaroaren 8tik 2008ko maiatzaren 14ra arte Madrilan, Doctor Fleming kalean egon zela deklara zedila. Arbitraje Batzordean 2012ko maiatzaren 2an planteatu zen gatazka horren planteamenduaren berri eman zion ZAEAk BFari, ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari bereziaren idazki baten bidez. Idazki hori BFAren 2012ko

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
42/2012	R11/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

maiatzaren 27an jaso zen. Data hartan bertan, BFAk erakundeari jakinarazi zion gatazka planteatu zela.

- b) 2012ko uztailaren 9an, ZAEAk ikuskaritzak SDU SLri 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari buruzko egiaztapen eta ikerketa jarduketak orokorrak hasi izanaren jakinarazpena bidali zion, eta 2012ko uztailaren 24an aktuarioaren aurrean agertzeko dei egin zion. Jakinarazpen hori 2012ko uztailaren 10ean jakinarazi zitzaion erakundeari.
- c) 2012ko uztailaren 17an, SDU SLko ordezkariak idazki bat aurkeztu zuen BFAri; idazki haren bitartez ZAEAk ikuskaritzaren zitazioa jaso izanaren berri eman zuen, eta salatu zuenez, jardunbide hori, bere ustez, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretu bidez onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoaren aurkakoa zen.
- d) 2012ko irailaren 13an, hau da, bi hilabeteko epearen barnean, ZAEAREN ikuskaritzak erakunde horri igorritako zitazioaren berri izan zuen unetik aurrera, BFAk ZAEARI inibizio-errekerimendua igorri zion, eta horren bidez beretzat erreklamatu zuen SDU SLri buruzko egiaztapen eta ikerketa jarduketak egiteko eskumena, erakundearen helbide fiskalari buruz Arbitraje Batzordean planteatutako eskumen-gatazka gauzatu bitartean.
- e) ZAEAK errekerimendu horri ez zion erantzunik eman jaso eta hurrengo hilabeteetan; horregatik, BFAk ulertu zuen ZAEAK bere eskumena berretsi zuela, eta beraz gatazka hau planteatu zuen Arbitraje Batzordean 2012ko azaroaren 2an, hau da, hilabeteko epearen barruan, ZAEAK eskumena isilbidez ustez berretsi behar zuen datatik aurrera, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.2 artikulua ezartzen duenez. 2012ko azaroaren 5ean, BFAk ZAEARI jakinarazi zion gatazka hau planteatu zela.
- f) 2015eko uztailaren 16an, Arbitraje Batzordeak R 14/2015 zenbakiko Ebazpena eman zuen, SDU SL erakundearen helbide fiskalari buruzko desadostasuna xede zuen 14/2012 gatazkari buruz. Ebazpen hartan ondorioztatu zuenez, helbide fiskala, 2006ko azaroaren 8tik 2008ko maiatzaren 14ra arte lurralde erkidean izan zuen. BFAk ebazpen horren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean, eta auzitegi horrek, abenduaren 20ko 2292/2016 Epaiaren bidez, errekurtsioa ezetsi eta ebazpena berretsi zuen.

3.- BFAk, gatazka planteatzeko eta alegazioak aurkezteko idazkietan dioenez, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretu bidez onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.2 artikulua zera xedatzen du: *«Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributur-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitraje Batzordearen ebazpenaren arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu*

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
42/2012	R11/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako». Horren arabera, ZAEAk SDU SLri iragarritako egiaztapen eta ikerketa jarduerak ezin zituen egin 2012ko uztailaren 10ean, ez zeukalako eskumenik, data hartan artean ez zelako ebatzi bere helbide fiskalari buruzko gatazka. Bere iritziz, gatazka hori ebazten ez den arte, ZAEAk ezin du argudiatu eskumen bat duenik, Ekonomia Itunak eskumen hori aintzatesten ez badio.

BFAk Arbitraje Batzorde honi honako hau eskatzen dio: *«Deklaratzea ezen erakundearen egiaztapen- eta ikerketa-jarduerak egiteko eskumena, Arbitraje Batzordean SDU SL erakundearen helbide fiskala zuzentzeari buruzko gatazka bat ebazten ari den bitartean, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean xedatuta dagoenaren arabera Bizkaiko Foru Ogasunari dagokiola».*

4.- Uzi horren aurrean, ZAEAk bere alegazioetan hau argudiatzen du: bere zitazioaren asmoa ez zen inola ere izan besteren eskumenak inbaditzea, eta horren froga da bere ikuskapen-jarduerak SDU SLren helbide fiskalari buruz ebazteke zegoen gatazka ebatzi arte eten zituela. Hain zuzen ere, ZAEAk honako hau gogora ekartzen du: *«Jardueren hasieraren jakinarazpenean agertzen denez, une hartan bertan zergapekoari jakinarazi zitzaion jarduera horiek eten egin zirela, Arbitraje Batzordean tramitatzen ari zen gatazka, zergapekoaren helbide aldatetari buruzkoa, ebatzi arte».*

ZAEAk, halaber, honako hau dio: *«Honelako kasuetan Administrazioen arteko gatazka egoten da zergadunaren helbide fiskalari buruz, eta Arbitraje Batzordean gatazka sortzen da, kontuan hartuta helbidea aldatzeko prozeduraren arauak eta hedadura; bada, halakoetan, arriskuan jar liteke preskripzio-unetik hurbil dauden uneetan ikuskapen-jarduerak egiteko lana. Horren haritik, zergadun batek helbide fiskala lurralde batean edo beste batean ezartzeak ez luke kalterik sortu behar Administrazio eskudunak egiaztapeneko administrazio-jarduera egiten duenean. Hau da, Administrazioen arteko helbide-aldaketako prozedurak denboran luzatzea ez litzateke aitzakia gisa erabili behar zerga-iruzurra egiteko, egin beharreko likidazioak egiteko eskubidearen preskripzioa gerta daitekeela aprobetxatuta».*

Eta zera eskatzen du: *«Bizkaiko Foru Ogasunaren uzia ezets dadila, eta horrenbestez deklara dadila zuzenbidearen arabera dela ZAEAk egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak hasia 2012-07-10eko jakinarazpen bidez, SDU SL erakundeari buruz, 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergarengatik».*

5.- SDU SL erakundeak bere alegazio-idazkian dioenez, bere iritziz, *«ez zen bidezkoa ZAEA ikuskapen-jarduketak egiten hasia; izan ere, jarduketa haren asmo bakarra zen 2007ko sozietateen gaineko zerga likidatzeko eskubidearen preskripzioa etetea, ekitaldi horren preskripziorako 16 egun soilik geratzen zirelako».* Ekonomia Itunaren 66.2 eta 3 artikulura eta Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.1 eta 2 artikulura joz, erakundeak zera uste du: bere helbideari buruzko gatazka ebazteke egonik, *«zergei buruzko eskumena Bizkaiko Foru Ogasunari dagokio, eta Ogasun*

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
42/2012	R11/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

horrek eztabaidagai den ekitaldi horren gaineko ikuskapen-prozedura hastea zeukan, inolako gatazkarik sortu gabe».

Bere tesia finkatzeko Madrilgo Eskualdeko Ekonomia eta Administrazio Auzitegiaren Ebazpen bat aipatzen du, 28/11703/2013 zenbakiduna, 2017ko urtarrilaren 27koa, bere taldeko beste sozietate bati, TG SLri buruzkoa; sozietate horren inguruan eta beraren inguruan ZAEA antzeko jarduketak egiten ari zen, ZAEAREN ikuskaritzaren aurrean ez agertzeagatik. Eskualdeko Ekonomia eta Administrazio Auzitegiak honako hau ondorioztatu zuen: «*Estatuko Administrazioak ez ditu errespetatu Ekonomia Itunean jasotako arauak; izan ere, jarduketak egiteari uko egin beharrean, interesdunari errekerimenduak egiten jarraitu zuen. Areago, bere ustez, errekerimendu horiei ez zitzaien jaramonik egin (zergapekoa ez zelako agertu ikuskaritzaren bulegoetan; eta hala ere, interesdunak horretarako bidalitako idazkiak ez ziren kontuan hartu), eta horregatik, zehapen-espeditentea tramitatu zuen, eta horren ondorioz orain aurkaratu den erabakia jakinarazi zen».*

Erakundeak Arbitraje Batzordeari honako hau eskatzen dio: «*Bizkaiko Foru Ogasunak egindako planteamendua baiesteko ebazpena eman dezala, kontuan hartuta ZAEAK ez zeukala eskumenik ikuskapen-prozedura hasteko, harik eta Arbitraje Batzorde honek zergadunaren helbide fiskalari buruzko gatazka ebatzi arte».*

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka hau ebazteko, argitu behar da ea ZAEAK SDU SL zergapekoaren aurrean egindako jarduerak, 2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari buruzkoak, hau da, bere helbide fiskala 2006ko azaroaren 8tik 2008ko maiatzaren 14ra arte zein lekutan zegoen argitzeko planteatutako gatazka ebazteke zegoen une batean egindakoak, erakunde horren gaineko ikuskaritza-eskumenaren inbasioa ziren, eskumen hori BFARI baitzegokion, zergatik eta bere helbide fiskalari buruzko gatazka sortu arte Administrazio hark likidatzen ziolako sozietateen gaineko zerga.

2.- Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 66. artikulua zera xedatzen du 2. eta 3. zenbakietan:

«Bi. Eskumenak direla-eta gatazkaren bat sortzen denean, ukitutako administrazioek interesatuei jakinaraziko diete; horrenbestez preskripzio-epea eten egingo da eta hortik aurrera administrazio horiek ez dute inongo jarduketarik egingo.

Gatazka ebazteko prozedura arau bidez ezarriko da. Prozedura horretan interesatuei entzun egingo zaie.

Hiru. Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
42/2012	R11/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera eramango dira, bestalde».

Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretu bidez onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15. artikulua izenburua honako hau da: «Gatazkaren sustapena jakinaraztea eta ondorioak». Artikulu horrek xedatzen duenez:

«1. Gatazka sustatzen duen tributu-administrazioak jakinaraziko dio gatazkak eragindako administrazioari, eta, ordutik aurrera, uko egin beharko diote biek gatazkaren xede den gaiaren inguruko edozein jarduketari, harik eta gatazka ebazten den arte.

Era berean, gatazkan dauden administrazioek gatazka sustatu dela jakinarazi beharko diete prozedurako interesdunei, eta jakinarazpen horrek geldiarazte-ondorioak izango ditu preskripzio-epean, edo etete-ondorioak iraungipen-epean, hala badagokie.

Beste kasu batzuetan, ezein administrazioek bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, Arbitraje Batzordeak gatazkaren aurkezpen automatikoa jakinaraziko die interesdunei zein eragindako administrazioei.

2. Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitro Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako».

3.- Kasu honetan, ZAEAk, 2006ko azaroaren 8tik 2008ko maiatzaren 14ra arte SDU SLk izandako helbide fiskalari buruzko 14/2012 zenbakiko gatazka Arbitraje Batzordean planteatu ostean, erakundeari jakinarazpen formala bidali zion, 2007ko sozietateen gaineko zergari buruzko ikuskapen-jarduketak hasteari buruz, eta aktuarioaren aurrean agertzeko epatu zuen. Jakinarazpen horretan, «Eskatzen diren agiriak» izeneko eranskinean, erakundeari eskatu zion «bidezkoa izanez gero, ordezkaritza-agiria, behar bezala beteta» aurkez zezala, besterik ez. Gainera, eranskin horretan honako informazio hau jaso zen: «*Jakinarazpen honen bidez hasi diren egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak, ikuskapen-jardueren epearen konputuari dagokionez, jakinarazi ziren egunetik bertatik eten behar direla ulertuko da, zergapekoaren helbide fiskala zehazteari buruzko gatazka dagoelako Euskal Autonomia Erkidegoko Arbitraje Batzordean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak planteatutako gatazka (Arbitraje Batzordearen Erregistroko sarrera-eguna: 2012ko maiatzaren 2a). Etenaldi hori gorabehera, ezartzen da zergapekoak 2012ko uztailaren 24an agertu behar duela ikuskaritza honen aurrean, jarduketaren norainokoari eta jarduketa eten izanari buruzko informazioa emateko. Bisita horretarako eskatzen diren agiri bakarrak ikuskaritzaren aurrean agertu behar duen pertsonaren ordezkaritza egiaztatzen dutenak dira».*

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
42/2012	R11/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

Espedientean ez da inon ageri, jakinarazpen hori bidaltzeaz aparte, ZAEAk zergapekoari dagokionez beste ezer egin zuenik; areago, SDU SLren ordezkaria aktuarioaren aurrean ez zen agertu ere egin aurreikusitako egunean.

Ekonomia Itunaren 66.2 artikulua, lehenago transkribatu den horrek dioena kontuan hartuta, auzitan jarri behar da Administrazioak Arbitraje Batzordearen aurreko eskumen-gatazka planteatu izana zergapekoari nola jakinarazi zaion; hain zuzen ere, ez da bere zerga-ikuskapeneko prozeduraren araberrako egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak hasteko zitazio baten ohiko modua. Ekonomia Itunaren 66.2 artikulua, aitzitik, jakinarazpen espezifiko baten formula iradokitzen du; lege-lerruna duen manu horrek berak jakinarazpen horri preskripzioa –eta bidezkoa bada, iraungipena– eteteko gaitasuna esleitzen dio. Aldiz, ez dauka egiaztapen-jarduketak hasteko zitazio formal baten antzik, nahiz eta aldi berean jarduketa horiek eteten diren.

Hala ere, kasu honetan, jakinarazteko formula zehatzaren aurkako eragozpena adieraztea dagoen arren, agerian dagoenez, formula horren helburu bakarra izan zen ZAEAk bere eginbeharra betetzea, hau da, SDU SL jakinaraztea bere helbide fiskalari buruzko gatazka planteatu izana. Eta era berean, egiaztatuta geratu da jakinarazpen horren ostean ZAEAk ez zuela beste egiaztapen- eta ikerketa-jarduketarik egin zergapekoari buruz; hala ere, agerian dagoenez, ZAEAk orduz geroztik gatazkaren xede zen gaiari buruzko jarduketa bat bera ez zuen egin, gatazka bera ebatzi arte, eta hala, egin behar hori ere bete zuen.

Eta ez da zertan ezer adierazi behar, ZAEAk eskatzen duen moduan, hau da, «*egiaztapen- eta ikerketa- jarduketak zuzenbidearen araberrakoak direla*» deklaratzeari buruz, azaldu den eragozpenaren ondorioz, bere jarduerak ez zirelako izan egiaztapen eta ikerketakoak, baizik eta, besterik gabe, gatazka bat sortu izana jakinaraztekoak. Hortaz, zera ondorioztatzen dugu: jarduketa horien bidez ez ziren inbaditu une hartan, helbide fiskalari buruzko gatazka ebatzteke zegoela, BFAk zeuzkan eskumenak, eta Ekonomia Itunaren 66. artikuluko nahiz Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15. artikuluko baldintzak errespetatu ziren.

4.- ZAEAk, halaber, honako hau dio: «*Honelako kasuetan Administrazioen arteko gatazka egoten da zergadunaren helbide fiskalari buruz, eta Arbitraje Batzordean gatazka sortzen da, kontuan hartuta helbidea aldatzeko prozeduraren arauak eta hedadura; bada, halakoetan, arriskuan jar liteke preskripzio-unetik hurbil dauden uneetan ikuskapen-jarduerak egiteko lana. Horren haritik, zergadun batek helbide fiskala lurralde batean edo beste batean ezartzeak ez luke kalterik sortu behar Administrazio eskudunak egiaztapeneko administrazio-jarduera egiten duenean. Hau da, Administrazioen arteko helbide-aldaketako prozedurak denboran luzatzea ez litzateke aitzakia gisa erabili behar zerga-iruzurra egiteko, egin beharreko likidazioak egiteko eskubidearen preskripzioa gerta daitekeela aprobetxatuta*». Bada, adierazpen hori *lege ferenda* desideratuma da, eta alde horretatik esan behar da ezin zela ondorioztatu, *lege data*, zerga-administrazioek eskubidea dutenik preskripzioa eteten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
42/2012	R11/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

du ten jarduketak egiteko beren eskumenetik kanpoko zergadunei dagokienez, Ekonomia Itunak aurreikusten dituen mugetatik harago.

Helbide fiskala aldatzeko prozeduran, Ekonomia Itunaren 43.9 artikulua aurreikusten duen horretan, ez dago aurreikusita zergapekoaren helbide fiskalaren zioz eskuduna ez den administrazio batek preskripzioa etetea kautelazko jarduketa bat egitea, eta horrenbestez jarduketa horrek legearen arabera ez luke babesik izango, Arbitraje Batzordean eskumen-gatazka formalki planteatu den kasuetatik kanpo, kasu horretan aplikatu behar baita Ekonomia Itunaren 66. artikulua aurreikusten duen hori.

Hori gertatzen da espediente honetan. Eta horregatik, ZAEAREN jarduketak ez ditu inbaditzen BFAREN eskumenak. Baina, helbide fiskalari buruzko gatazkarik planteatu ezean, Administrazio baten jarduketak etetea ordura arte beste Administrazio baten eremuan helbideratutako zergapeko bati buruzko preskripzioa, ez dago legean babesterik. Zerga-administrazioek eskubide legitimoa dute helbide-aldaketako prozesuak denboran luzatzeak Administrazioaren egiaztapen-ahalmena kalte dezala eragozteko, egin beharreko likidazioak egiteko eskubidea preskribatu ahal delako, baina era berean, zergapekoek ere eskubidea dute eskumenik ez duten Administrazioen jarduketarik normalean jasan behar ez izateko.

5.- SDU SLREN uzia, hau da, bere helbide fiskalari buruzko gatazka ebatzi aurretik ZAEAK egindako jarduketa, esan den bezala gatazka planteatu izana jakinaraztea, besterik gabe, deslegitimatuta egotea, bere asmo bakarra «2007ko ekitaldiko sozietateen gaineko zerga likidatzeko eskubidearen preskripzioa etetea zelako», ezin dugu onartu. Hori ez dago, inondik ere, Ekonomia Itunaren aurreikuspenen barruan. Hain zuzen ere, 66. artikulua honako hau bermatzen du: helbideari buruzko gatazken kasuetan, eskumena zein Administrazioak daukan zalantzan egotea ezin da aitzakia gisa erabili zerga-administrazioen eskubideak preskribatzeko edo, kasuan kasu, iraungitzeko. Itunak ahalmena zertarako eman dion eta hori egin zuen ZAEAK SDU SLREN aurrean, besterik ez, eta are gehiago, itunak agintzen diona. Jarduketa legitimoa, batez ere kontuan hartzen badugu erakundeak eztabaidagai den aldiari – 2007ko ekitaldian– izan zuen helbide fiskalari buruzko gatazka bere alde ebatzi zela.

ZAEAK SDU SLREN aurrean zehazki egin zuena ez zen izan Madrilgo Eskualdeko Ekonomia eta Administrazio Auzitegiaren 2017ko urtarrilaren 27ko 28/11703/2013 epaiari bidea eman zionaren antzekoa; orduan, erakunde erreklamatzailerak zehatu egin zen, bere helbide fiskalari buruzko gatazka bat ebazteko zegoela egindako egiaztapen-zitazio bati jaramonik egin ez ziolako. Kasu honetan ez da bidezkoa Madrilgo Eskualdeko Ekonomia eta Administrazio Auzitegiak ZAEARI ebazpen hartan aurpegiratu ziona esatea.

ZAEAK SDU SLRI jakinarazpena egin ostean ez zen egiaztapen- eta ikerketa-jarduketarik egin; beraz, BFAREN eskumenak ez ziren inbaditu, eta ezin da esan eskumenik gabeko jarduketarik egin zenik; eta SDU SLREN asmoa bada preskripzioa ez

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
42/2012	R11/2018	2018-7-27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Egiaztapen eta ikuskapen jarduerak egiteko eskumena

etetea, Ekonomia Itunaren 66.2 artikuluan aurreikusita dagoenaren aurka, hori ere ezinezkoa da.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

1.- Deklaratzea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak SDU SLren 2007ko sozietateen gaineko zergari buruz egindako jarduketak, erakunde horrek 2006ko azaroaren 8tik 2008ko maiatzaren 14ra arte izan zuen helbide fiskalari buruzko 14/2012 zenbakiko gatazka Arbitraje Batzorde honek ebatzi gabe zuela egindako horiek, ez zirela izan orduan Bizkaiko Foru Aldundiari zegozkion eskumenen inbasioa, ez zirelako izan egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak, baizik eta gatazka haren planteamenduaren jakinarazpen-jarduketak baizik.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta SDU SL erakundeari jakinaraztea.